

## PRENTSA OHARRA

### **Itziar Laka, Eusko Ikaskuntza-LABORAL Kutxa Humanitateak, Kultura, Arteak eta Gizarte Zientzien Saria 2024**

*Hizkuntzalariak euskarari eta elebitasunari egin duen ikerketaren bitartez, euskararen eta Euskal Herriko garapen zientifiko eta kulturaren inguruan ekarpen nabarmena egin du*

**Donostia, 2024ko maiatzak 17.** Eusko Ikaskuntzak eta LABORAL Kutxak jakitera eman dute gaur 2024ko Eusko Ikaskuntza- LABORAL Kutxaren Humanitateak, Kultura, Arteak eta Gizarte Zientzien Saria curriculum nabarmenaren irabazlea. Sariaren epaimahaia Eusko Ikaskuntzaren eremu geografikoko zazpi unibertsitateetako eta Musikeneko ordezkariak osatu dute, Eusko Ikaskuntza eta LABORAL Kutxako ordezkariekin batera, eta Itziar Laka Mugarza ebatzi dute 2024ko irabazle gisa.

Itziar Laka Mugarza hizkuntzalariak ekarpen berritzaileak eta pisu handikoak egin ditu euskararen garapenerako eta hizkuntza-gaitasunak gobernatzen dituzten mekanismoetan sakontzeko.

Hizkuntzalaritza esperimentalak eta neurohizkuntzalaritza lantzen dituen lehenengo ikerketa-taldea sortu zuen 2010ean. Hainbat proiekturen ikertzaile nagusi izan da Euskal Herrian, estatuan eta nazioartean, eta hizlari gisa parte hartu du hizkuntzalaritzaren arloko nazioko eta nazioarteko biltzarretan. Era berean, irakasle izan da hainbat herrialdeetako unibertsitateetan. Epaimahairen ustez, “eredu handia izan da, gazteen artean ere, euskara gorenko maila zientifikoan jarritz, metodologia berriak baliatuz, punta-puntako ikerketekin landuz, egun berebiziko garrantzia duten alorrak jorratuz”.

Itziar Lakaren ibilbidean funtsezko dimentsioa da euskara unibertsitatean eta gizartean sustatzea. Gaur egun Euskara Sustatzeko Zuzendaritzako buru da EHUko Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetzan. EHUko Euskara Institutuarekin lankidetzan, hizkuntzalaritza-lan klasikoaren itzulpena sustatu du.

Jardun akademikoarekin eta ikerkuntzakoarekin batera, Itziar Lakak lan itzela egiten du zientziaren eta zientzia-kulturaren zabalpenean. Zentzu horretan, epaimahaiak adierazi du “Elebitasunaren inguruan egon diren mito batzuk ebidentzia zientifikoaren bitartez bertan behera utzi ditu,

euskarari ez ezik, hizkuntzalaritzari bere orokortasunean ere, ekarpen nabaria eta agerikoa eginez”.

Hala, Itziar Lakaren maila handiko ikerkuntza- eta zabalkunde-jarduerek zalantzarik gabeko balioa dute zientziarentzat, kulturarentzat eta euskal gizartearentzat orokorrean.

### **Eusko Ikaskuntza-LABORAL Kutxa Gazte saria**

Aurreko astean, hilaren 7an, ezagutzara eman zen Eusko Ikaskuntza-LABORAL Kutxa Gazte Sariaren irabazlea eta, sariak seigarren edizioa betetzen duen honetan, Garazi Navasek eta Maite Aizpuruak lortu dute aitortza “Adarbakarra eta soinujolea” lan performatiboari esker. Bere proposamenak euskal kulturaren irudimenean, mitologian eta erreferentzietan ikertzera gonbidatzen dute, ikuspegi queer-feminista eta garaikidean oinarrituta. Diziplinartekotasunetik (musika, literatura eta antzerkia) euskal kulturaren elementuak eguneratuko dituzte. Saria 6.000 euroekin lagunduta dago.

## IZIAR LAKA MUGARZA

### EUSKO IKASKUNTZA — LABORAL KUTXAREN HUMANITATE, KULTURA, ARTE ETA GIZARTE ZIENTZIA SARIA 2024

ITZIAR LAKA MUGARZA (Getxo, 1962). Hizkuntzalaritza katedraduna da Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU). Doktoa (Doctor of Philosophy Linguistics & Philosophy) AEBko Massachusetts Institute of Technology (MIT), honako tesi honekin: «Negation in Syntax: On the Nature of Functional Categories and Projections MITWPL», 1994an *Outstanding Dissertations in Linguistics*-en argitaratua. Europako eta Ameriketako unibertsitateetan (Massachusettseko Unibertsitatea, Boston, MIT eta Rochester-eko Unibertsitatea, besteak beste) irakasle-esperientzia du, eta hizkuntzalaritzaren arloan ezaguna da, bai Espainian bai nazioartean.

1999an sartu zen EHUko irakasle-taldean, eta aurretik Massachusetts Unibertsitatean (Bostonen), MITen eta Rochester Unibertsitatean egin zuen lan, besteak beste.

Europako eta Amerikako unibertsitateetan aritu da irakasle-lanetan, eta nazioarteko ospea du hizkuntzalaritzaren arloan.

Hizkuntzalaritza-teoria, sintaxia, euskal gramatika, psikohizkuntzalaritza, hizkuntzaren neurozientzia kognitiboa eta elebitasuna dira aditu honen ikerketa-lerro nagusiak.

Hizkuntzalaritzaren alorrean aitzindari izan da Euskal Herrian, eta 2010ean neurologiako unibertsitate-ikerkuntzako lehen taldea sortu zuen: Gogo Elebiduna/La Mente Bilingüe/The Bilingual Mind.

Ikerketa-proiektuen zuzendari da, 80 argitalpen baino gehiago plazaratu ditu aldizkari zientifikoetan, eta nazioarte-mailako liburuak kaleratu ditu. Azpimarragarria da hizkuntzalarientzako idatzi zuen *A Brief Grammar of Euskara, the Basque Language* euskal gramatikari buruzko deskripzioa. Halaber, hizkuntzalaritzako lan klasikoen zabalpena egin du euskaraz, besteak beste, Noam Chomskyren *Syntactic Structures* eta Leonard Bloomfielden *Language* euskarara ekarrita, edota Chomskyk eta Piagetek hizkuntza eta ikaskuntzaren inguruan izan zuten eztabaida ospetsua.

Era berean, nabarmentzekoa da zientzia zabaltzeko eta ezagutza zientifikoa gizarteari transmititzeko egin duen lana, askotariko baliabideak eta euskarriak erabilia. Hala, Itziar Laka erreferentziazko pertsona da Euskal Herriko kulturaren, zientzian eta ikerkuntzan.

## NOTA INFORMATIVA

### **Itziar Laka, Premio Eusko Ikaskuntza-LABORAL Kutxa de Humanidades, Cultura, Artes y Ciencias Sociales 2024**

*La lingüista, a través de su investigación al euskera y al bilingüismo, ha realizado una importante aportación al desarrollo científico y cultural del euskera y de Euskal Herria*

**Donostia-San Sebastián, 17 de mayo de 2024.** Eusko Ikaskuntza y LABORAL Kutxa han dado a conocer hoy el fallo del Premio Eusko Ikaskuntza-LABORAL Kutxa de Humanidades, Cultura, Artes y Ciencias Sociales 2024. El jurado del premio compuesto por representantes de Musikene y de las siete universidades del ámbito geográfico de Eusko Ikaskuntza, junto a representantes de Eusko Ikaskuntza y LABORAL Kutxa ha otorgado el galardón al currículo más destacado en las citadas disciplinas a Itziar Laka.

La lingüista Itziar Laka Mugarza ha realizado aportaciones innovadoras y de gran alcance para el desarrollo del euskera y para la profundización en los mecanismos que rigen las competencias lingüísticas. A criterio del jurado, “es un gran ejemplo, también entre la juventud, al más elevado nivel científico, trabajando el euskera con metodologías innovadoras, con investigaciones punteras, en campos de gran importancia en la actualidad.”.

En 2010 creó el primer grupo de investigación dedicado a la lingüística experimental y la neurolingüística. Ha sido investigadora principal en diversos proyectos vascos, estatales e internacionales, y ha participado como ponente en congresos nacionales e internacionales en el ámbito de la lingüística. Asimismo, su experiencia docente le ha llevado a impartir en universidades de distintos países.

La promoción del uso del euskera en la universidad y en la sociedad es una dimensión clave en la trayectoria de Itziar Laka. En la actualidad se halla al frente de la Dirección de Promoción del Euskera del Vicerrectorado de Euskera, Cultura e Internacionalización de la UPV/EHU. Y en colaboración con el Instituto de Euskera de la UPV/EHU ha promovido la traducción al euskera de obras lingüísticas clásicas.

En paralelo a su labor académica e investigadora, Itziar Laka desarrolla una ingente labor en la difusión de la ciencia y la cultura científica. En este sentido, el jurado ha señalado cómo “ha desterrado con evidencia

Informazio gehiago / Más información

[komunikazioa@eusko-ikaskuntza.eus](mailto:komunikazioa@eusko-ikaskuntza.eus)

+34 618.18.49.49 (Leire Gaceo)

científica algunos de los mitos que han existido en torno al bilingüismo, con una clara aportación no sólo al euskera, sino también a la lingüística.”.

Con todo, las actividades de investigación y difusión de alto nivel de Itziar Laka poseen un valor incuestionable para la ciencia, la cultura y para la sociedad vasca en su globalidad.

### **Premio Eusko Ikaskuntza-LABORAL Kutxa Gazte saria**

La semana pasada, el día 7, se dio a conocer el nombre de las personas ganadoras del Premio Eusko Ikaskuntza-LABORAL Kutxa Gazte Saria, y en esta sexta edición, Garazi Navas y Maite Aizpurua han conseguido el reconocimiento gracias al trabajo performativo “Adarbakarra eta soinujolea”. Su propuesta invita a investigar en el imaginario, la mitología y las referencias culturales vascas desde una perspectiva queer-feminista y contemporánea. Desde la interdisciplinariedad (música, literatura y teatro) busca actualizar los elementos de la cultura vasca. El premio está dotado con 6.000 euros.

## IZIAR LAKA MUGARZA

### PREMIO EUSKO IKASKUNTZA — LABORAL KUTXA DE HUMANIDADES, CULTURA, ARTES Y CIENCIAS SOCIALES 2024

ITZIAR LAKA MUGARZA (Getxo, 1962). Catedrática de Lingüística de la Universidad del País Vasco/ Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU). Doctora (Doctor of Philosophy, Linguistics & Philosophy) por el Massachusetts Institute of Technology (MIT), Cambridge, Massachusetts, USA, con la tesis: "Negation in Syntax: On the Nature of Functional Categories and Projections MITWPL", publicada en *Outstanding Dissertations in Linguistics* en 1994.

Con experiencia docente en universidades europeas y americanas (Universidad de Massachusetts, Boston, MIT y Universidad de Rochester, entre otras instituciones), está reconocida en el ámbito de la lingüística a nivel nacional e internacional.

Sus líneas de investigación se centran en la teoría lingüística, la sintaxis, la gramática vasca, la psicolingüística, la neurociencia cognitiva del lenguaje y el bilingüismo.

Pionera en el campo de la lingüística en el País Vasco, en 2010 fundó el primer grupo de investigación universitaria en neurología: Gogo Elebiduna/La Mente Bilingüe/The Bilingual Mind.

Directora de proyectos de investigación, y autora de más de 80 publicaciones en revistas científicas y libros de rango internacional. Cabe destacar su descripción de la gramática vasca para lingüistas titulada *A Brief Grammar of Euskara, the Basque Language*. Asimismo, le ha ocupado la difusión en lengua vasca de obras clásicas de la lingüística como *Syntactic Structures* de Noam Chomsky y *Language* de Leonard Bloomfield, o el famoso debate entre Chomsky y Piaget sobre lenguaje y aprendizaje.

Es de destacar igualmente su labor de difusión científica y de transmisión del conocimiento científico a la sociedad por los más variados medios y soportes. Todo esto hace de Itziar Laka una personalidad de referencia en la cultura, la ciencia y la investigación en Euskal Herria.